

JAMES MORRIS ▶ MUSIKARIA

«Jamixen kontzertuetan edonork topatuko du gustuko doinuren bat»

Jamix musika taldearen proiektuari buruz hitz egin digu Donostian bizi den Galesko musikariak



IRUTXULOKO HITZA

SAIOA LABAKA

Galesen jaio zen, eta Antiguano bizi da duela bi urte pasatxo. Musikaria da James Morris, eta Donostiako Jamix musika talde berrian baxua eta gitarra jotzen ditu. Inprobisazioa eta musika estiloen nahasketa dira taldearen zutarrak. Proiektu berriaz hitz egin digu.

Nola sortu zen Jamix?

Donostiara iritsi nintzenean ez nekien gaztelaniaz hitz egiten, eta hizkuntza ikasteko trukea egin nuen hemengo mutil batekin. Honen bidez ezagutu nuen kasualitatez Ganix Ubarretxena, taldeko teklatu jotzailea. 15 urte inguru daramatzat musikaren munduan Ingalaterrako hainbat taldetan jotzen, eta hona iritsi nintzenean musika proiekturen batean parte hartzeko gogo a nuen. Berehala hasi ginen Ganix eta ni gure musika estilo eta esperientziak partekatzen eta entseatzeko. Gerora, web orrialde katalan batean iragarki bat jarri genuen abeslari bat bilatu nahian, eta Amaia Garaterekin egin genuen topo. Bateria eta saxofoi jotzaileak ere badira taldean.

Zer motako musika egiten duzue?

Hainbat musika motaren arteko fusioa egiten dugu: jazz, funk, soul, reggae, blues, rap, flamenko, salsa, samba, elektronikoa, bossa nova, chill-out... estiloak lantzen ditugu. Horrez gain, inprobisatu ere egiten dugu. Taldekide guztien gustu eta esperientziak bildu, eta ideia eta soinu berrien bila ibiltzen gara. Esaterako, nik rap eta hip-hop erritmoak ditut gustukoen. Abesti gehienak hainbat estiloren konbinazioak dira, baina bada estilo jakin bakarrari eusten dionik ere. 13 abesti inguru ditugu oraingoz eta horietatik bi bertsioak dira.

Inprobisazioak pisu handia al du zuen musikan?

Inprobisazioaren eskolakoa naiz ni, eta oholta gainera igo eta inprobisatzen hasia arruntena da niretzat. Musika-aren alderdi politenetako bat da hori egin ahal izatea; momentuan jotzea. Abestien egiturak inprobisatzen saiatzen gara eta kontzertu batzuetan abesti osoak inprobisatzeko parada ere sortu izan zaigu. Asko gozatzen dut une horietan; eta, hein batean, momentu horien-gatik naiz musikaria.

Zer diote zuen abestiek?

Bizitza nola bizi eta sentitzen dugun azaltzen dugu. Letrak nik idazten ditudanean, esaterako, egin ditudan bidaietan bizitutako esperientziak eta gogoetak aipatzen ditut. Jendea nola bizi behar duen esatea ez zait gustatzen.

HIRIA

«Donostiari falta zaion gauza bakarra kulturen arteko nahasketa da; kolore falta da nagusiki nabaritzen dudana»

Grabaketarik egiteko aukera izan al duzue?

Orain dela gutxi grabatu dugu maketa bat eta ahalik eta toki gehienetara bidaltzeko asmoa dugu. Sei abesti biltzen ditu maketak. Euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta portugesez kantatzen ditugu gure letrak. Maketak zer nolako harrera izango duen jakiteko itxaron egin beharko da.

Kontzertuei dagokienez, nola joan da udara?

Ez ditugu kontzertu asko eman, baina ezin gara kezatu. Donostiako Guardetxean, Fnacen eta hainbat herritako festetan jo dugu. Donostian bertan gehiago jotzeko aukera ere badugu, baina edo ez dute ordaintzen edo oso gutxi ordaintzen dute. Oso zaila iruditzen zaigu taldea ezagutaraztea, eta, are gehiago, Donostiatik kanpora ateraztea. Musikari guztien ametsa izan ohi da musikatik bizi ahal izatea, baina ezinezkoa da gehienetan.

Zer topatuko duzue Jamixen kontzertuetan?

Sarri kontzertuetan entzuleak ez du izaten hainbeste musika motaren fusioa entzuteko aukerarik. Guk denetarik jotzen dugunez, edonork topatuko du ziur gustuko doinuren bat. Inprobisazioaz gozatzeko aukera ere izango du entzuleak. Kontzertuak, azken finean, ikuskizun interesgarri bat eskaini nahi izaten dugu; jendearen arreta lortzen saiatzen gara. Energiatz beterik eta indartsu ateratzen gara oholta gainera.

Eta zuk zer topatu duzue Donostiako kontzertuetan?

Acido C taldea asko gustatzen zait. Ken Zapki taldea ere oso gustuko dut, letra ulertzen ez badut ere! Bestalde, Karlos Nguema antzezle eta musikariarekin zer edo zer jo izan dut *jam session*-etan eta berarekin proiekturen bat sortu nahiko nuke.

Zerbait izango du Donostiak; bi urte pasatxo dira hemen bizi zarela.

Bizitza osasuntsua egiteko peregabea da hiria. Janari ona, itsasoa gertu, uhartea, mendiak... Oso gustura nago hemen. Donostiari falta zaion gauza bakarra kulturen arteko nahasketa da; arraza ezberdinak, ideia ezberdinak... Kolora falta du; hori da nagusiki faltan nabaritzen dudana.